EUZKEL--ATALA

EIBAR

JESUSEN BIOTZ JAINKOZKOAREN JARGOITZEA JUAN BERGARETXE JAUNAREN ETXEAN

Gizonarentzat, zoriona Jaungoarena izaten dago, eta zenbat eta geiago Jaungoikoagana urreratzen dau, ordun da geiago bere biotza poztu, eta bere bizi bideko ibilleratan garbigo azalduko da, eta batez ere betiko zoriona ill ondoren errezago iritxiko du. Gaurko munduban ikusten diran negarbide, zoritxar eta ezbearrak, Jainkoaz aztuta. Bera bastartzetik datoz, orregatik erietan gizartean eta sendi edo familietan zoriona nai bada, Jaungoikoa gora bera guztietan sartu bearda. Bera gure Jaun ta Jabea dalako, eta Bera ez beste iturrietatik ur ustela, eta usaiduna besterik ez datorrelako.

Orregaitik noski Juan Bergaretxe jaunak, euskaldun zintzo, ta garbia bezela, bere etxean Jesuse'n Biotzaren Jargoitzea egin du emazte seme alaba ta erañak batean bildurik. Au ziran bere emazte Elizkoi Eulali bere seme alaba Pedro, Martin, Luis, Lutzi, Maria bere errain Benedicta Gandiaga ta Victoria Maitzejean etxekoandreak; eta gertaera an oso gogoangarria izan zedin, Ama Eulali'ren urtebetetzeko egunean egin zuten, abenduaren 10'an Jargoitzea Olaetxeatar Andres aide lengusu apaizak egin zuan, zorionak danari, eta Goiko Jaunak Jargoitze orrekin familia bedeinkatu, eta emaitz ugariak emanaz, danak zeruratzeko izan dedilla.

RATEK.

GETXO-ALGORTA

IZOTZ EDO ANTZIGAR GOGORRAK

Alan egiten dauzkuz egun onetan, uste laike, negue daukogula gañian gomutaeraiteko direala; goizian goizetik eta gabaz belu dabiltzanantzat ez dirala lar egokiak, bestetik lugiñentzat edo lurrentzat onak direla entzun dot, bertako mamarro guztik, lurren-kaitegarri direnak ilten daitulako, alan bada, ondo-etorriak.

ASTEROKOA BIZKAYERAZ

"Arriola" idazle ospatsuak diñuanari ezteretxat txarto, biyen-bitarte zerbait egiten bada egunerokoatzaz; asteroko badakigu zer dan, eta zer lan egin leikean, beratraz lan aundi egileikela, ezin ukatu leike; ordaukoguz "Argia" Donosti'n "Geure Herria" eta "Eskualduna" beste alden eta emen be euki doguz eta asteroko ezpada, bada daukagu orain be "Jaungoiko-Zale" aldizkingi polita amabostero agertzen dana, guzti euzkeraz eta zelan idatzita bera; badaukogu beste bat be eta da "Euzkerea" illerokua au be polite erderaz eta euzkeraz. Onek dire Bizkayan, eta Naparruan be badagoz bi edo iru eta Donostiñ be egongo da besteren bat, eta beste alden be uste dot badagozala; orregatik nik uste dot euki biar gendukela, astj-biarbada itxedon apur bat eta egunerokua, baña ona eta egokia, izpartzua eta onuratzua, naiz lugiñentzat, naiz itxastarentzat, naiz edozetariko izparrak ugari ekarkoak eta atzerrikoak; alan izparringi orekin naiko genduke Euzkal-erriko eta Euzkiko barrik jakiteko.

Baña asteroko bategaz poztuten bagera Bizkayan, nik uste dot beti egongo gerala geure okellutxuban, eta onetara uste dot ezdoguzala sekule inderrak alkartuko.

Egiya da eta nik esan neban Egunerokoan erakuski ikusi nebanian ez ekidala etzegiñ Euzkalerri guztireko egoki; ba biar doguna zala izparringi bat guztiok gogo z irakurri geinkiana, ez bakarrik geure izkuntzan idatzita dagolako ezpada onuratzua eta gozatsu dalako. Baña erdizerdizko izparringia bada beste bat erosi biar eta asko ezkare lez ogazuntsubak izparrik gabe geratu biar edo beste izparringi bat artu biar eta etxekoa utzi irakurri gabe.

Dana dala bakixu "Arriola" jauna getu zaguzala aldoguntxuan laguntzeko eta agindu.

GABONAK ETA URTEBARRI

Gabon zoriontzu batzuek nai dotzu bedaz, euzkel-idazle eta euzkeltzale guztiori eta geuron sendiri, eta Gabon-zar on batzuk igaro eta Urtebarri zoriontsu eta ogazuntzu bat izan daizuela datorrena; baita euzkaltzaliak be betatu daiguzala Urtebarri onetan, geure nayak, guzti ezpada be zati batzuk J. I.

ERRI.

OÑATI

NERE ANAI "OLAITURRI"

Poz pozik irakurri nion ire ezkutizkoa igandean, eta beste izpar askoren artian nere izena jartziaz geyago. Baño gauz bat esan bear diat, eta dek ez detala nik maltzurkeririk ibilli iz Iturriondo eta Iturriurrutikin, ez da iruzur egiteko asmorik Prakazar'ekn ere. Iruzur egin diana bera izan dek ez ni ta ez diat lotzarik len itz neurtuetan bezela orain emen bigarren aldiz azaltzeko, bada oraindik ez dek arkitu bere erantzuna eta onezkero ez diat itxaropenik ere. Bai iruzur egiten ibilli ez balitz. Sinistu zak au sinistu zak.

Aloña mendik bere oñetan
Daukazan seme guziak
Ez uste izan "Olaiturri"
Dirala euskotar garbiak;
Bildots jantziaz azaltzen dituk
Izanik otzo aundiak
Ama euskeren seme kutunoi
Kentzeko geren biziak.

Bei bat ere egiña aiz euskel idazle oiri egita biko igandean biltzeko ezanaz eure auzoko sagardotegui ospatsu ortara "Txopekora" askari eder bat edorren sakeletik egiteko. Ez dek gaizki motel, baño nere tzat ez dek aukeratu oso egun ona. ¿Ezai ekian igande orretan Arrasaten jai aundiak aukeratu dituztela, euren euskel idazti saltze ta gañerako gauz ederrakin? ez al dek bertatik jiratxo bat egiteko asmorik ala? Bada nik bazeukeat eta igandean etortzen ez banauk "Txopekora" jakiñian egon nun izango naizen. Beste jai baterako utzi, ta otz eziten badek zenbatu zuen artean ai ere. Ik dek itza. Agur.

KUKUPRAKA.

BASAURI'TIK

Lengo egun baten yoan nintzan ikusketa batt eginez Bide-bittako geltokien dabiltzezan lanak ikusi ez ibiltaldi bat eiten. Guztiz ederto ipinten dauze geltoki barriari Igor-Burrinbide orrek bauko dirue, ze gauze ederrak eiten dabil. Ba, diñoan modoren, an aurkitu nintzan langille euskel dun hategaz, ta itz alditxuan euki gendun Kasio, Manuel, lanian sendo je! Bai ha, ein biar guk non edo non ogie jateko eintarik eztaute, alitu eustan. Ta galdetu neutzan ¿eztotzu zuri iñok esan langillen ermandadan baten sartzeko? Ako arranoa, aditu eustan ibe orretan ator, emen be naiko buruko miñik emoten eustie ba. Bateko sosialistek daukiela inder aundie ta besteko katolikuek, euskeldunentzat orixe be ona da esan neutsan, Jaungoikoan erlejiñoa gauze ona da, Manu. ¡Bai, orixe! esan eustan, ¡erlejiñoa...! gauze onena, baña orren artean be eztauz danak izena daukien modukoak, ezta gitxi au be.

¿Ezara iñoz egon langillen ermandadan? llen ermandadan, ta guztiz ederto porten

¡Bai! egon nintzen antxiñe eusko langiziren nigaz, lau illebetean egon nintzan lan barik ta eguneko lau lau erleko ordainduten eustiezan.

Ba, esetuten dau txarra obia da, ezautu bako ona baño, esan nutzan. Neu bere orretan nago, esaustan.

Kontuz ez, esaunekaz Manu! lenauko artzañena jaso eztaitzun, ¿zer jaso yakon, ba? ara, artzañan zan gauze barri zalea, ta iñor bano gei au izen gurekoa, ta beiñola agertuzan bera bizi zan auzunera, diabrua ederto jantzita gizon andiki baten moduan, ta asi zan esaten guztieri, berari garraituten dotzenari, egoak urtengo dautziela txorien moduen egatz eiteko, ta iñok esauelez ezaututen, danak itsillik egon ziran, ta iñok be ezatzen gure garraitu, baña artzain gauze barri zaliari agertu zanian, esan eutsan onek kokoak dira danok. Neu joango naz, ta mugidu zan diabruan atzetik tapa tapa mendi ziarra gora, ta goiko gneko aldrapa baten ganean gelditu zan diabrua, ta ezan eutzauara, neure moduan saltu eizu ta egoak urtengo dautzue, esan da saltu eiuen, ta egoak urten da aldendu zan laño artean, baña artzañe ¡gizajoa! zauritute ilde agertu zen beko trokan.

Orregaitik, kontuz, Manu, edoziñeri ez segidu.

—Errozoia daukozu, esaustan ta arratsalde onak emonda banandu gintzazan.

BASOTXORI BAT.

EIZA - IZTIA EDO ABERE TA PIZTIAK

Lezo'ko A. Agurgarria'rena Euskera irakasten dan ikastoletarako irakurgai polita. Bi laurleko'ren ordez. Amar ale baño geiago eskatu ezketiño, merkeago dira.

EUZKADI'ren banakolean salgei.

ELGOIBAR

ELEIZKIZUNA

Igandian urtero bezela, Deun Kalare'ko lekaimiak, ospatu zuten Ama Sortze Garbia'ren eleizkizun aundia. Goizian jaupa nagusia abesturik oso ederki bertako lekaimiak "Fons Bonitanis" jaupagille izanik Urrestarazu (txaunburu jauna), laguntzalle opakua eta Ezeiza apaizak. Itzaldi bero bat zuzendu zuan Aita Lamaran Zarauz'ko pantzeskatarrak.

Ondoren oitura duten bezela baskari eder bat eman zien lekaimiok beren etxian apaiz jaunari eta bere sendagille da Zubizarreta't Toma'ri.

Arratsaldian bertako eleizatxuan beste jai aundia egin zuten Irugarren Mallako'eri dagokiona Jauna agirian zala, eta beste itzaldi bero eta jator bat gure elez zezundu zien alkartasun ontakueri lenago esan dedan aita lekaidiak. Bukaera emanik eguna dagokion abesti ederrak abesturik.

IZPAR BELTZA

Asteazkenian JJauna'ren besoetan ill zan Irurogei urte zituala Kerejeta't. Mireu Goyan bego. "Lizundia-Beko" andrea.

Bere eleizkizunetan eta obiraltzian osta aundia batu zan batez ere "Arixaga" balleko baserritarrak, bertakua izan baita Miren.

GEXORIK

Arkitzen da Iriondo't. Emilene gure lagun Unzueta't. Joseba Mirena'ren emaztia. Zendatzeko biarrekua izanik Zubizarreta eta Eizagirre osagilliak denborak baño len aurra ateratzia, umia ongi arkitzen da ta ama ere poliki dago. Asko pozten naiz.

PRESUPUESTUA

Udalak aprobatu du datorren urterako presupuestua, izango da:

Gastuak, 169.564,20 laurleko.
Bildubak, 169.564,24 laurleko.

OSTIKO JOKUA

Datorren igandian emengo Lerun zelaian izango da ostiko jokua U. D. Eibarresakuak, Bergara'ko F. C.'ren aurka.

SENDAGILIAK

Astian zabalou zituzten emengo sendagilliak ori batzuk, euren olagerak edo presiuak jazotzen, baña ez dakit zer gertatu zaien, atzera batu dituzte, eta orain arte bezela izango dira olagera eta urteko ajustia amabi laurleko.

JUN ETORRIAK

Legazpi'ra jun da Alberdi't. Miren neskatillia.

—Burgos'tik etorri da gudaritzatik, gabon jaiak igarotzera Larreategi't. Mikel.

—Madrid'dik etorri da San Martin't. Benedicta.

—Bostekua stutu diogu Donosti'tik etorri ta Sagartzazu't. Julen ospatsubari.

AIXERIXA.

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Lizartza'tik etorrita asteartian egon zan emen, Pagola't, Koldobika yauna.

—Bilbo'tik etorri ziran Goiti't. Luki, Barrenetxea't. Ander, Garrido't. Imanol eta Mañarikua't. Estanis mutilla.

—Eibar'tik Ariznabarreta't. Martiñ.

—Eguaztenian egon zan emen Atutxa't. Kepa yauna Abadiño'ko txaunburua. Yaun au aspaldiyen dabil erririk-erri "Katolikotar lugintz-batza-ren zabalguntza egiten.

—Balladoliz'tik etorri zan Gabon yaiyak igaroten Barrueta't. Yoseba Mirena mutilla.

—Emen egun batzuk igarota Logroño'ra yuan zan Arana't. Yule.

—Elorriyo'tik Sarobe't. Sebasten.

—Igaro zan asteko larunbatian egon zan emen, Goiti't. Erroman zanaren il-otoitzetara etorrita Martiñ Aita Larra'ko karmeldarren nausiya.

—Elorrio'ra ta Berriz'era yuan zan Ariznabarreta't. Atanase irakaslia.

—Eibar'era yuan zan Gabon yaiyak igaroten Usaola't. Martiñe.

—Lengo astian agurtau genduzan Beitia't. Mariñe eta Areitiourtena't. Susane.

ERIOTZA

Astelenian, Etxanobe't. Karla Urkule-erdiko artzaiñ mutil zoliya, Mendizabal'en ur-saltu barriya egiteko lanian ebillela, arri-daun-badiak yota oso txarto zauritu zan.

Bere langille lagunak beriala yaso ta etxeratu eben. Eta andik ordu batzuk barru Eleizakuak artuta ta miñ asko yasan da, Yaungoikua'ren besuetan il zan.

Etxanobe't. Karla mutilla, bere gurasuentzat on eta zintzua izan da, ta ezagun eta aizkidientzat be, alai ta baketsua; orregaitik ezbiar eriotza onegaz tamal andiya artu da.

Obiraltze ta il-otoitzak eguaztenian egin ziran. Yaunak zeruan euki bei bere arimia. Atsekabian laguntzen dautsagu bere guraso ta neba-arrebai.

EGUTEGIAK

Datorren urteràko "Jaungoiko-Zale"-ren egutegiak, Amantegi't. Lon'en etxian dagoz salgei. Zazpi txakurrian bakotxa saltzen da.

Irakurle, zeiñ urte ta zeiñ egunetan bizi zarian yakin gura badozu, ta ipuiñ, abesti ta izkirimiri politakaz atsegindu gura badozu, erosi egizu egutegia ta etxatzu damuko, "Jaungoiko-Zale"-rena dala esatia, naikue esatia dala uste dogu.

ZAURITU

Lengo igande arratsaldian, Telleria't. Estepan mutikua Azkoti-erdiko arrobiyan beste mutiko batzukaz yolasian ebillela, tontor batetik bera yausi zan, eta anka bat ausi ta arpegiyan be, ebagi batzuk egin yakozan.

Estepan yausi zanian, beragaz egozan mutiko lagunak bildurtuta ankayoko garratza egiñ eben. Eskerrak, an inguruan aurkitu zan gazte bati, ba, berak yaso ta etxeratu eban mutikua.

Urrenguan, mutiko begikuok, iñor zauritzen danian, al-badozue yaso ta etxeratu, ta bestela urrengo etxekueri deitu. Beintzat, zauritua bakarrik ez egizue itxi.

GEIXUAK

Geixorik dago Barrenetxea't. Nemese andrea.

Oberantza eginda dagoz Goiti't. Ezekel eta Gorostitza't. Ikene.

EIZARIYAK

Egunokaz, eizari batzuk mendiyetara yuaten ikusten dira. Goizian-goiz ta bizkor samar yuaten diran arren, eztabe alako gauza andirik be, ekarten.

Iru egun oneetan yausi diran leitzarrakaz, erbi ederrak baño otza ta gosie obeto etxeratuko eben.

IZURTZA'KO IZPARRAK

—Galdakao'tik etorrita egun batzuetan egon da Beitia't. Marine.

—Madrille'ra yuan ziran negualdiya igaroten, Beko-Jauregi'ko Garcia-Salas't. Todosi ta Erramon, au bere emaztiaz.

Aspalditxuan dago geixorik Arkoetxe'ko Iñaki gizona.

MAÑARIKO.

AZKOITI

IZPAR BELTZA

Igandian obiratu zan gure lagun euzkotar Izagirre't. Joseba'ren aita Irureta Iñaki "Basterretxe" igeltzeroa, bere gogoen eleiz kizunetan notin asko eldu zan G. B. Laguntzen diogu atsekabe samiñian bere emazte seme alaba gañuntzeko enparau gustieri, otoi bat irakurlia bere gogoen aldez.

Baita luzaro gaixorik egon ondoren ikurtun deunak artu bereganatu digu, uriko endore izandako aundikietako Irizar't. Iñaki, bere gorputza obiraltzia eta eleizkizunak otegunian izandu ziran G. B. otoi dezagun bere alde irakurlia, atsekabe garratz orretan laguntzen diogu emazte seme alabari.

✤ ✤ ✤

Igandian irugarren Pantzestarrak eukiko dute beren illaroko eleizkizuna, goizian Jaunartzia eta arratsaldian eleiz jaia txonitzakin.

✤ ✤ ✤

Ezkon ibilli aldia egin eta etorri zaigu bere txokora pelotarien txapelduna dan Joaristi Mariano Atano III'rena bere emazte Aramendi't. Josebe'rekin. Ondo etorria eta urte askotan Jaunak osasuna emandaizula zoriontxu izateko.

✤ ✤ ✤

Donosti'n Juan Altsuak bereganatu digu ikurtunak artu ondoren Alkorta't. Pantzeska azkoitiar zintzo benetakoa, G. B bere gogoa, otoi bere aldez.

EGUARRIAK

Ondo ospatutzia alaitzuak opa dizutet, Euzkel-idazle, euzkota reuzkeltzale eta irakurle gustieri bakoitzak bere sendiekin gure Jaunari ala nai daikiola.

EGI-ALDE.

MUXIKA

JAYOTZA

Seme barri batekin geitu dabe euren sendija Zallo't. Lukano ta bere emazte U't. Miren'ek zorijonak.

JUAN-ETORRIJAK

Bilbora juan dira Gabon aurreko egun batzuk igaroten Insunza't. Joseba Gotzon eta bere emazte Bilbao't. Kepe.

Bermio'ra juan dira gudaritza aurkezkundia egiten aurten zozkeratuko itxas guda mutil barri (kinto) diran Beaskoetxea't, Kaxinto, Ugalde't. Andolin, Uribe't. Genar, Zarrabeitia't. Dunixi, Bilbao't. Martin eta Beaskoetxea't. Gergori, guztiyoi aske ixatia opa dautzuet sari bako otseintza'tik.

Bilbao'tik etorrita emen agurtu dogu Enbeita't. Sabin itxas gudarija.

Baita emen ikusi gendun igandian Enbeita't. Imanol euzkel idazle ta olerkari gorengua bere seme Joseba Imanol eta lekaide gaste bat lagun ebazala.

ZAURITUTA

Ankia zaurituta aurkitzen da Zaldunbide't. Andere. Arin osatutia opa dautsagu.

"BERRI"-RI

Ondo etorrija "Berri" baña zeure berritasuna zer da gero ixen ordia bakarrik ala idazlia be bai nik uste dot ixen ordia bakarrik ixango dala eta au Berri ixen aldakuntze au ete dok lengo igandian daunbada bi jaurti ondoren Erbijak igez egin dautsulako ala zugatzai errijak urtetia baño urrundu dauan gauza bat laistertzak jakin eta jarri sendulako, baña dana-dala idatzi sari-sari irakurri daiguzen Berri'k bialdu ta Muxika'ko Berrijak eta ia zarrok be noiz bein kikildu barik idatzi.

GABONAK

Euzkel-idazle ta irakurle danori gabon zoriontsuak opa dautsuedaz eta batez be gure artzaiñ eta oker zuzentzalle "Orixe" jaun maitiari.

BIZKARGI MENDI.

¡ILL DIRA BAI ILL DIRA!

DONOSTIA

Euskaldun odol garbi gorria
Zu bezin gorri garbirik,
Ludi ontako bazter guzitan
Iñu arkitu ez det nik;
Noiztikan zaude odol guzien
Lenengo mallan jarririk?
Guzialdunak Adan gure aita
Egiñ zuan egunetik.

Paregabeko euskel odol au
Gaur ère bada ludian
T'ez urruti jun nere anaiak
Dauzkagu geure artian;
Areriuak pozez dabiltza
Legortuko dan ustian
¡Iru aitatxo kutun maitiak
Jun zaigulako urtian!

Egia da bai iru aitatxok
Alde zaigutena ondotik
Egaturikan donoki alderuntz
Eusko kabitxo ontatik;
Egia da-bai illak dirala
Bañan ez euki zalantzik,
Euskel odola gordeko dute
Emen bezela au goitik.

Lenengo berri tamalgarria
Genduan Kirikiño'kin,
¿Zeñek uste zun bigarren ura
Artzia du Bitor'ekin
T'irugarrena lengo egunian
Gure Xaber maitiakin?
Euskalerria, negarrez dago
Iru eriotz oyekin.

Negargarria da izan ere
Urte beteren gañean
Iru euskotar sendo gartsuak
Sartzia obi deunean;
Baña bakigu anai nereak
Gaudela Jesus'en pean,
Lur maite oin agur eiteko
Berak agintzen dunean.

Otoi bero bat eskatzeizuet
Oyen gogo alderako,
Atseden toki eder garbian
Ez baldin baude sartzeko,
Baldin badaude, uste detan lez,
Bertan gorago jartzeko,
Otoi dezagun seme kutunok
Maitasuna agertzeko.
¡Esanaz! Aitak, lagun zazute
Zuen antzeko izateko,
Sinispen baten bizi t'iltzian
Atseden ortan biltzeko.

OÑATIAR BAT.

AGENCIA FUNERARIA DE LA SANTA CASA DE MISERICORDIA

PRIMER ANIVERSARIO

✝

EL JOVEN

Don Antonio de Gondra y Landeta

(Q. E. P. D.)

Falleció el día 22 de diciembre de 1928,

a los 23 años de edad

Habiendo recibido los Santos Sacramentos y la B. A. de Su Santidad

SUS PADRES, DON JOSE Y DOÑA PATRICIA; HERMANA, DOÑA JUANITA; TIOS, TIOS POLITICOS, PRIMOS Y DEMAS PARIENTES.

SUPLICAN a sus amigos se sirvan encomendarle a Dios en sus oraciones y asistir a los funerales de cabo de año que, en sufragio del alma del finado, se celebrarán mañana, lunes, día 23, a las OCHO de MEDIA de la mañana, en la iglesia parroquial de los Santos Juanes, de Bilbao.

(No se reparten esquelas.)

ELANTXOBE

¡Begoñako Ama Neskutsa'gana izan gara bai! nekaztasunak irabasteko ustez. Olanik esan daust Bilbora "Andra Mariyaren" yatzikeria ikusten yuan zan andra batek eta ene andra au mirariturik etorren bertatik geure ama oneri egiñ eutsezan yayekiñ.

Neuk yakiñ gurarik itandu neutsan zerbait esan daiztela yai orren ospetasunagaitik eta orduan andra onek emonik yarri neiten aulki bat diñost. ¡Poz pozik esango dautsut neure yuan etorri eta neuk ikusi nebana! Larunbat goxian yun giñan belbill bete notiñ geyenok andrak izanik Bilboko uri ederrera "Begoñako Ama'ri" egiten eutsen yatzikera'ra.

Bilbora eldu giñanian aldendu nintzan beste Elantxobetar andra lagunakiñ eta neu neutara ñoien elizinguru edo prosesiño orren tartian. Eziñ ondo esan leiñe San Franzisko deritxon kalia zelan agertzen zan zapaillo edo balkoi gustiyak egozan ikurriñ eta itzekis beterik, bertan ziran bost edo sei erresbats aldra eta gogotxu yote eben euren soñu argiyak. Eztot uste sarri ibilli naizan neure oñ akiñ egunatan baño geyago baña ez nintzan nekatu.

Azkenez esan biar dautzut "Ama Neskutza" orren arpegiya agertzen zala barrez barrez eta esan leike geugaz asarratu barik dgola ba ondiño neure belarriyak ango ¡gora! didarran durundiya egiten dauste.

Andra oneri neugaz itz egiteko gar agaz ixerdiyak gogotxu yausten yakon eta orduan diraurátz ¡naikua esan daustazu! eta ezkerrik asko! Oraiñ biyok egiñ tzaigun ¡gora! didar soli bat danon aldez eta "Begoñako Ama" maite orrek lagunduko dausku, ¡bai didar gogoz eta soli eiñ be!

LUKE DEUNA

Egun atan bertoko neskatilla lirañak ospatu eyeben egun ori gustiz ondo. Yostunen azterkariya dan bitartez deuna'ori neskatilla onek ez eyeben itzi gura astuta, eta orretako yuan ei ziran "Ea" erri politxera'an txokolate yataldi ona eta abesti batzuk abesturik urte eben eta emen ziran neskatillok guztiz gogo ontzu egun au igarota

—¡Ondo neskak! zeuen gogo edo umore ona oitura da eta oitura ona ez aztu ¡Aurrera beti!

ONDO ETORRIYAK

Egun otan mutill ikasle asko etxeratu dira gabon yaiyak euren sendiyen artian igaroten onen artian eldu da Imaz't. Jon mutill gaztia. Baita Buenos Aires aldera yuan etorriya egin da estututzegu bostekue Ugaldea't. Donata Ibarrangeluko seme zintxoari. Ondo etorriyak.

ETXE BIZITXIA ALDATU

Bariku egunian alde egiñ dau Gernika aldera bizi izaten Telleria't. Kepa bere sendiyegaz. Ondo bixi baña ez aztu geure erri onegaz.

OGOÑOPE.

GETXO-NEGURI

EUSKO LANGILLEAK

Geure langille zintzo onen antzeslari taldeak bariku gaubean egin eben Erandio'ko "Salon Crespo"-n Bilbao'ko batzun laguntasunagaz antzoki jai polit bat, diru apur bat lortuteko erri atako Eusko Langillen idazlari zan Jauregi't. Koldobika'ren alargunarentzat. Antzestu ebezan "Eskuz-Eskuz" ta "¿Me caso?" Beterik egon ei zan antzokia ta neska mutillok ederto baño obeto betatu ei ebezan euron bearrok. Antzeslari ospetsuak eginik dagoz, ta laster alan jarraitu ezkeron egozein sartuten da eurekaz antzoki gaietan. Zorionak danori, ta alan jarraitu.

NASKALDIA

Bartzelona'tik etorri dira Aretxabala't. Jon ("Erri") ta Aretxabala't. Bonipagi, euren emazteakaz. Ia "Erri" adiskidea esan zer ikusi dozun andik.

Izterreko zauri bategaitik egun batzuk etxean egonta, gaur bostekoa eztutu dautsegu geure adiskide Lexartegi't. Bitor'eri.

Baita San Sebastian osalarien osate-etxean ebakuntza bat eginta gero obetorantza doala ikusi dogu geure adiskide Llantada't. Errikarta.

DEUN TOMA EGUNA

Egun onetan urtaro lez Bilbo'n egiten dan merkatu ospetsura oiturea dan lez ainbat geure baserritar begiko etorten dira. Bide batez euren baserrietako usabari urteko alogera ordaindu, ollaskorik onenak, baita kapoi, sagar ta madari, ta onelango baserri gauza gozoakaz. Urrengoan bere esango dabe baserritar gixajoak, eurek aunbatentzako egin bear dabela, ta egia. Eurek artu arren, onelako gauza gitxi jaten dabe, indaba lapikoa, ta pozik beragaz, baña beste batzuntzako, alegindu bear, ondo gixenduten, ollasko, kapoi, ta beste onelango gauzak.

Egun orretan beti lez, baserritarrez ondo beterik ikusi doguz Bilbo'ko kaleak, eta geure euskera maitea edonon entzuten zan atzo Bilbo'n ta ondo pozik entzuten gendun euren aboetatik. Onek bai dirala zoironez ondiño euskeldun benetakoak. Danok alegindu bear geintekez eureri irakasten euskerea zer dan, ze garrantzi daukon, eta zer egin bear daben beti iraun daien. Baña orretarako zer egin bear da? Adibidea emon. Eztau balio ezateak baserritarrak erderara zaletuten doazela, ta lotzorra dala, batez bere urira etorri ezkeron, gero doazanean barriro euren etxeatara eztabela euskera egin gura, ta onelango beste gauza asko. Onetan geuk dogu errua, ba adibide txarra emoten dautsegu baserritarrari, ta eurek ikusten dabena baño besterik eztabe egiten. Aleginduko bageintekez danok, baserritarri erakusten zer dan geure euskerea, ta geuk danok egin, eurekaz ta geure artean ,adibidea diñodan lez emonaz, eurek ikusiko leukie ze gauza andia dan euskerea, ta pozik iraungo leukie beti euskera egiten. Gero euskel ikastolak, orrek dira bear doguzanak. Noz ikusiko ete doguz euskel ikastolak, uri aundi ta txikietan? Orrek dira euskerea gaizkatuko leukienak.

GABONAK

Onezkeron etxean doguz. Zorionak opa dautsuedaz danori; ondo igaro daizuezala, irakurle ta euskel idazle danok.

TROKATIKO.

GARREN ATALKIA

(Donapaleu'ra joan etorria)

Goizeko nagi goxoak ogean nindukala —jeikiko al, ez al?...— telefono-otsa.

Zuti. belarriok...

Neskameak: *¿Quiéeen?*...

Neskamerik ezta Euskalerria'n, telefonoz euskeraz dakinik. ¡Arian barrena ibiltzeko ere, lakatza ta baldarra degu. noski mintzoa!...

Baña, orraatik, euskerari eldu bear izan dio, *quien*'aren urrengo. Agi danez, deitzallea ezta nornai...

Aizak! —nere artean— Mendiola ote?... Egin ote-dit beribillean tokirik?... Bart, etzula baitzion... Ta nik iru eguneko bizarra; sasia jana arpegia ¡Zortziretan abitzekoak zirala, ta zortzirak orintxe... Auxe dek lana!

Mendiola da, bai. Joateko ta joateko, ixongo didatela; bizarrak zer-ikusirik eztula gure eginbearraz...

Ez bizarra moztu, ez gosaldu —jantzi ere ozta-ozta— banoa.

¿Zer egin bear zenduan?... Egun eder bat nola-nai galtzekoa ezta.

✤ ✤ ✤

Beribil bi daude gerturik.

Mendiola'renean, jabeaz gain, Etxeguren deritzan zaldun bat, Jausoro olerkaria ta neretzako utsunea. Arregi guriarenean, "Uitzi", Larrain —Ibarluze'ko Udal-otseña— ta gizaseme aundi sendo igar bizar-beltz bat. —Rekalde, izenez— aiitarengandik Karlos'en gudateko oroitzez, ta are suz ere, betea.

Eguna urdin garbia. Berotu bear du poliki eguerdirako, Agorra illurren izanagatik.

Noizbait ere, Arregi'ren "guardia" asi da oska, ta badijoaz. "Uitzi" muskurioka ibillia dute, ain bide luzea egiteko berandu omen-dala-ta. Goiztarra izan gizagajoa, ta besteak oge-zulo uts...

Gu ere abia gera noizpait, Donosti'runtz, Etxeguren dalakoa ta Jausoro ditut atzean.

Etxeguren, gizon egiña da, ta, diotenez, lege-gizon azkarra: Euskal-erria'tik ate bizi-izaten omen, geienean. Arpegiz, sudurkako, begi-bizi, okotz-zorrotza; oldez, urduria ta alaia.

Olerkaria du aldamenean: aingeru azpildu-gabea. Arpegi gorrizta ta apaiz-jazki beltza, alkarrekin egon-bearraren bear gorriaz ditu lagun; baña lagunarte gordintxa dagie. Luzexha sudurra, goi-beez beintzat —musuaren arabera— ta pitin bat zearka azia. Begi otxan parre-beraak ala diotzute, begiratzen zaitutenean: "Olerkari biozti bat nazu: orrenbestez esana dago eztedala "malizi" aundirik". Larre-larrean bizi dezu erretore, ta are ginballak (kapelak) ere badio alako basaka-uxai ta igazkotu-kutxu bat; gañera, gutxienik uste dezula, ez bat eta ez bi, lepazamarreruntz dijoakio.

Ateratzen baitu Mendiola'k urtero euskel-egutegi bat, arakoxe apaiz begi-urdiñak egin izaten dizka zenbait zizka-mizka ta izkirimiri. Ordañez, Mendiola'k eman izaten dio —gaur bezela— basotik ateko ega-alditxo baten abagunea.

Ibil-eguntxo auek arroagotze ndute txantxangorria eguraldi epelak baño. ¡Badu ark etorria, alazainkoa, neurtitzez ainbatsu itz askatuz ere!... Or det atzean, itzari laga eziñik... Etxeguren enetxoa: ¡entzun bear dituzu zereak eta bi!...

✤ ✤ ✤

¿Zer zatozkit, "Uitzi" adiskide miña; zer, Homero, Anakreonte, Virgilio ta Ciceron buruan edukiagatik, bete-beteko euskaldun zaitugun ori?... ¿Zer zatozkit, bai, oñaknarras, izkutu-mizkutuka, bekokian beera ginbail-egala eratxirik, betaurreko-erantziak begiak lausotu ta izu-antz?...

—¿Zer irizten nazu? —galdegin dit— ¿Zure anaiaren antzik badet?... ¿Aterako otedegu gauz onik?

Nik, baietz; egoteko lasa...

Beobia'n ditugu alkar-izketok. Mugan gauze ez-arian ez-arian, bidetxoa egin baitegu... Orain, beribilleen ta gu geronen nora-agiriak erakutsi-bearra.

"Uitzi" badijoakit, Jainkoarren "iñori ez esateko" aginduz...

Nik eztizutet oraindaño esan, baña "Uitzi" zintzo orrek nere anaiaren nora-agiria darama, alkarren antzik bai-baitute, ur-tantoak ardoarenaren ainbat... Ikusi degu, orde, zenbait bidexka arturik dala arranoa, mugazaiak gezurpean atzeman eztezaten.

Egiñ zuan egunetik.

(Continuará).

LOS PASOS A NIVEL

Un choque que pudo resultar trágico

En Durango ocurrió ayer mañana un accidente, que pudo revestir caracteres de catástrofe, y que, afortunadamente, se resolvió sin que hubiera que lamentar desgracias graves.

Según nuestras primeras noticias, a las siete de la mañana chocaron en un paso a nivel del ferrocarril a Elorrio, en aquella localidad, un tren de la indicada línea y un tranvía de la línea Bilbao-Durango-Arratia, y en el choque había habido algunos heridos. Más tarde pudimos concretar las circunstancias del accidente. Cuando el tren atravesaba el paso a nivel, el tranvía se precipitó sobre él, embistiéndole en los vagones últimos. El golpe hizo retroceder al tranvía, y esta circunstancia fué la que, por fortuna, evitó que la cosa no tuviera más graves consecuencias. El tranvía llevaba bastantes viajeros, que sufrieron el susto consiguiente. Varios de ellos fueron levantados de sus asientos por la conmoción del vehículo. El conductor sufrió algunas heridas de consideración, aunque no de mucha gravedad. También resultó herida de alguna consideración una niña que viajaba en el tranvía, y que fué derribada del asiento al ser repelido el citado vehículo por el convoy férreo.

El coche sufrió varios desperfectos considerables, y también experimentó averías el tren en uno de sus vagones.

Ignoramos cómo pudo producirse el choque, y si las barreras del paso a nivel estaban abiertas o lo fueron por el tranvía.

LA AZUCENA

Fábrica de flores :: Plaza Nueva, 12